



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (Esp.: 08/2012, FARMAZIETARAKO ZERBITZU INFORMATIKOAK)

Laburpena:

I. AURREKARIAK	2
1. Prozedura-aurrekariak	2
2. Enpresa	3
II. FROGATUTAKO GERTAERAK	3
III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK	10
1. Araudi aplikagarria	10
2. LEKren eskumena, gaia aztertzeko	12
3. Jokabidearen azterketa.....	13
A. Elkargoaren jokabideari dagokionez.....	13
B. Ibermáticari dagokionez.....	14
a. Kolusiozko jarrerak	14
b. Nagusitasunezko posizioaren abusua	14
EBATZI DU	18

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako kideak bertan direla, ebazpen hau eman du FARMAZIETARAKO ZERBITZU



INFORMATIKOEI buruzko 08/2012 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (aurrerantzean, LDEZ) —egungo Ikerketa Zuzendaritzak (aurrerantzean, IZ)— hasi zuen espediente hori ofizioz, IBERMÁTICA SAK (aurrerantzean, Ibermática), ustez, lehia murrizteko jardunbideak egin zituelako.

I. AURREKARIAK

1. Prozedura-aurrekariak

1. 2012ko ekainean, LDEZk jakin zuen Ibermática enpresak, ustez, lehia murrizteko jardunbideak egin zituela.

2. 2012ko uztailaren 5ean, ikusita Ibermáticak agian Lehia Defendatzeko Legea (aurrerantzean, LDL) hautsi zuela, LDEZk isilpeko informazioaren izapidetzea abiaraztea erabaki zuen, LDLren 49.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, zehapen-espediente bat irekitzeko baldintzak betetzen ote ziren ikusteko¹.

2012ko uztailaren 6an, informazio-errekerimendu bat igorri zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Farmazia Zuzendaritzari. Erantzuna 2012ko uztailaren 19an sartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren (aurrerantzean, LEA) erregistroan.

2012ko uztailaren 10ean eta urriaren 9an, informazio-errekerimenduak igorri zitzaizkion Euskal Herriko Farmazialarien Kontseiluari. Erantzunak 2012ko uztailaren 26an eta urriaren 22an sartu ziren, hurrenez hurren, LEAren erregistroan.

2013ko otsailaren 20an, informazio-errekerimendu bat igorri zitzaion Elkargoari. Erantzuna 2013ko martxoaren 4an sartu zen LEAren erregistroan.

2013ko otsailaren 21ean, informazio-errekerimendu bat igorri zitzaion Ibermáticari. Erantzuna 2013ko martxoaren 4an sartu zen LEAren erregistroan.

2013ko ekainaren 24tik uztailaren 13ra bitartean, informazio-errekerimenduak igorri zitzaizkien hainbat farmaziari. Erantzunak 2013ko ekainaren 26tik urriaren 3ra bitartean sartu ziren LEAren erregistroan.

3. 2014ko maiatzaren 16an, IZk zehapen-espedientea ez irekitzeko proposamena bidali zuen, erreferentziazko espedientearekin batera, LEKra.

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa (BOE, 159. zk., 2007ko uztailaren 4koa).



2. Enpresa

4. **IBERMÁTICA SA** (IFK: A20038915; helbidea: Mikeletegi pasealekua 5, 20009 Donostia) aholkularitza informatikoaren arloko enpresa bat da (1510 folioa).

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknlogiekin (IKT) lotutako zerbitzuetan espezializatuta dagoenez, batik bat arlo hauetan aritzen da: IKTen aholkularitza, azpiegitura-zerbitzuak, informazio-sistemen integrazioa, *outsourcinga* eta enpresa-kudeaketako konponbide integratuen ezarpena (1502 folioa).

Hainbat zerbitzu ematen ditu; besteak beste, hirugarrenen aplikazioen mantentze-lanak eta *help-desk*² deritzon zerbitzua (1500 folioa).

II. FROGATUTAKO GERTAERAK

5. **2001eko apirilaren 27an**, “Farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetzatza sanitarioa burutzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena” (aurrerantzean, Hitzarmena) izenpetu zuten Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Kontseiluak eta Elkargoek (40-117 folioak)³.

Hitzarmena sinatu zutenek hitzeman zuten aktiboki parte hartuko zutela errezeta elektronikoen ezarpenean eta garapenean, eta, horretarako, beharrezko baliabideak emango zituztela beren jardun-eremuetan.

2006ko apirilaren 3an, “Farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetzatza sanitarioa burutzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena aldatzeko akordioa” (aurrerantzean, Akordioa) izenpetu zuten Hitzarmenaren sinatzaileek (34-39 folioak).

6. **2010eko abenduaren 23an**, “Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Euskal Herriko Farmazialarien Kontseiluaren arteko lankidetzatza-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoan errezeta elektronikoa garatzeko eta ezartzeko” (aurrerantzean, Osasun Saila-Kontseilua Hitzarmena) izenpetu zen.

Osasun Saila-Kontseilua Hitzarmenean, e-rezeta ezartzeko egin beharreko lanen esparru orokorra zehaztu zen.

² *Help-desk* edo Laguntza Mahaia (LM) baliabide teknologikoen eta giza baliabideen multzo bat da, eta gerta litezkeen arazo guztiak modu integral batean kudeatzeko eta konpontzeko zerbitzuak ematea du helburu.

³ 2001eko maiatzaren 1ean sartu zen indarrean.



E-rezeta dokumentu elektroniko bat da, eta, haren bidez, farmazia-bulegoetan zer botika eman behar diren agintzen dute osasun-langileek. E-rezetak, informazioaren teknologien bidez, prozesu hauek biltzen ditu:

- Preskripzioa.
- Kontrola.
- Medikamentuak eta produktu sanitarioak ematea.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kargurako errezeten fakturazioa.

Farmazia-bulegoek botikak ematen dituzte, hori fakturazioarekin dago lotuta, eta horren kudeaketa Elkargoen eskumena da.

Osasun Saila-Kontseilua Hitzarmenak klausula hauek jasotzen ditu, besteak beste:

LEHENA: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea Osasun Sailaren eta Euskal Herriko Farmazialarien Kontseiluaren arteko harremanak arautzea da, farmazia-bulegoetan eta Euskal Herriko Farmazialarien Elkargoetan errezeta elektronikoaren proiektuaren lehen fasea garatzeko eta ezartzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta zerbitzuak hornitzeko.

BIGARRENA: Alderdien betebeharrak

1. Euskal Herriko Farmazialarien Kontseiluak betebeharrak hauek hartzen ditu bere gain:

- Prozesuaren nodo zentrala hornitzea.
- Farmazialarien hiru elkargo ofizialetako azpiegiturak errezeta elektronikoaren proiektuko eskakizunetara egokitzea.
- Komunikazioak egokitzea: farmazia-bulegoen artekoak, farmazia-bulegoen eta elkargo ofizialen artekoak, eta elkargo ofizialen eta Osasun eta Kontsumo Sailaren artekoak.
- Farmazia-bulegoetan ezartzea.
- Softwarea ezartzea.
- Egiaztatari digitalak seguru bihurtzea.

2. Osasun eta Kontsumo Sailak koordinazio-lanak egingo ditu, errezeta elektronikoa ezartzeko lehen fasea modu integratuan egin dadin Osasun eta Kontsumo Sailak proiektu horren funtzionamendurako garatutako sistemekin, datuen funtzionamendu ona, osotasuna eta segurtasuna bermatze aldera. Gainera, proiektuaren finantzaketan lagunduko du, bosgarren klausulan ezarritako baldintzetan.

(...)

BOSGARRENA:



Akordio hau sinatzearekin batera, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak **2.000.000 euro** emango dizkio Euskal Herriko Farmazialarien Kontseiluari, hitzarmen honen bigarren klausulan bere gain hartu dituen **konpromisoek sortutako gastuak finantzatzeko erabil ditzan.**

7. Osasun Saila-Kontseilua Hitzarmeneko bi alderdiek enpresa banaren zerbitzuak kontratatu zituzten, teknologiaren arloko aholkularitza eta zenbait zerbitzu jasotzeko.

Hala, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE SA), Osasun eta Kontsumo Sailak bere esku utzitako kudeaketaren ardura betez, Hewlett-Packard SMri esleitu zion "Euskadi mailan, errezeta elektronikoa hedatzeko informatika-sistemen analisia, diseinua, eraikuntza eta abiaraztea" kontratua⁴.

Kontseiluak, berriz, enpresa hauengana jo zuen, zer zerbitzu-eskaintza zuten aztertzeko: Serikat, Altia, Ibermática eta Datinza (dena den, aurrerago, azken enpresa horrekin hasitako negoziazioak etetea erabaki zuen)⁵. 2010eko otsailaren 15eko Kontseiluaren osoko bilkuran, **Ibermática** enpresaren eskaintza aukeratu zen (*1044-1165 eta 1323-1325 folioak*)⁶.

2011ko ekainaren 29an, "Hardwarea hornitzeko eta ezarpen- eta ustiapen-zerbitzuak emateko kontratua" (aurrerantzean, **Ibermática-Elkargoak Kontratua**) izenpetu zuten Ibermáticak, Kontseiluak eta Elkargoek. Kontratu horren bidez, Ibermáticak bere gain hartu zuen e-rezetaren ezarpenarekin eta

⁴Lizitazioaren iragarkia: http://www.ejie.eus/y79-04/es/contenidos/informacion/concursos_anteriores_2011_ejie/es_0209/adjuntos/documentos/556_Anuncio_c.pdf

Esleipenaren iragarkia: http://www.ejie.eus/y79-04/es/contenidos/informacion/concursos_anteriores_2011_ejie/es_0209/adjuntos/detalle_concurso_c_556.htm (Bi iragarkiak kontsultatu diren azken aldia: 2014ko urriaren 28a)

Ikus, halaber, "Osasun Sailaren eta Farmazialarien Elkargo Ofizialaren arteko Errezeta Elektronikoen Batzorde Teknikoaren bileraren akta", 2010eko maiatzaren 25ekoa (*1326 folioa*). "Bestalde, jakinarazten da EJIEren ordezkaria eta behin betiko hornitzaile esleipendunarena (HP) Batzorde honi batuko zaizkiola hurrengo bileran".

⁵2010eko otsailaren 4an, Elkargoaren ordezkartza batek Datinza enpresaren Zaragozako egoitza bisitatu zuen. Horren ondoren, Elkargoak erabaki zuen irekitako negoziazioak eten egingo zituela, Datinzaren egoitza urrun zegoelako, enpresak eskarmentu gutxi zuelako errezeta elektronikoen arloan, eta hazteko eta dibertsifikatzeko gaitasun eskasa zuelako; izan ere, Datinzak papereko formatua prozesatzen lan egin izan du beti (*1324 folioa*). Beste hiru enpresen eskaintzak espedientean jasota daude.

⁶ Elkargoek farmaziei igorritako jakinarazpenetako batean jasota dagoenez (*429-432 folioak*), Kontseiluak adostu zuen hornitzaile bana aukeratuko zuela proiektuaren hiru ardatzetan eta Euskal Autonomia Erkidego osorako (847 farmazia) (Errezeta elektronikoa buruzko jakinarazpena, Bizkaiko Farmazialarien Elkargoak farmaziei igorritakoa, RZ-3, 2012ko martxoaren 30ekoa, *2012ko martxoaren 27an farmazia-bulegoetako titularren kideek egindako bileraren laburpena*): kide teknologikoa (Ibermática), konektibitatea (Euskaltel) eta sinadura elektronikoa (Izenpe).



ustiapenarekin lotutako zerbitzuak eta softwarea sortzeko ardura, bai eta proiektua burutzeko beharrezkoak diren ekipoak eta bitartekoak hornitzekoa ere (190 folioa).

Honela dio kontratuaren laugarren klausulak:

Hitzarmenean, farmazialarien lanbide-erakundeek zenbait konpromiso hartu zituzten errezeta elektronikoa dagokionez, eta Ibermáticaren ardura izango da **konpromiso horiek betetzeko beharrezkoak diren lanak** egitea; hau da, errezeta elektronikoa ezarpenarekin eta ustiapenarekin lotutako zerbitzuak eta softwarea sortuko ditu (...), eta, gainera, proiektua burutzeko beharrezkoak diren ekipoak eta bitartekoak hornituko ditu.

Egin beharreko lanen memoria deskribatzailean jasota dagoenez, ondoko lan-eta zeregin-paketeetan daude banatuta Ibermáticaren betebeharrak⁷:

- Kudeaketa eta aholkularitza.
- Prozesuaren nodo zentrala.
- Komunikazioak.
- Farmazia-bulegoetan ezartzea.
- Softwarea garatzea eta ezartzea.
- Egiaztagiri digitalak seguru bihurtzea.
- Erabiltzaileen laguntza-zentroa. Erabiltzaileen laguntza-zentroak (CAU) edo Farmazia-erabiltzaileen laguntza-zentroak (CAUF) eskainitako laguntza-zerbitzuak lau multzotan sailkatzen dira, motaren arabera: arazoak, matxurak, kontsultak eta eskaerak.

Memoria horretan jasota dagoenez, Ibermáticak, **aukeran**, mantentze-zerbitzuak eskain diezazkieke farmaziei, baldin eta ekipamenduak bermerik gabe badituzte edo mantentze-lanetarako zerbitzu espezifikorik ez badute (476 folioa).

Proposatutako CAU zentroak urrutiko zerbitzua ematen du; hau da, lantokira joan beharrik izan gabe konpontzen dira arazoak. Hardwareak arazoren bat duela hautematen bada, erabiltzaileari proposatuko zaio **farmaziak berak kontratatuta duen mantentze-lanetarako zerbitzuarekin harremanetan jartzeko edo ekipamenduaren bermea baliatzeko**; bestela, datuak CAUFera bidaltzeko eskatuko zaio, dagokion izapidetzea eta jarraipena egiteko.

(...)

Farmaziek, baldin eta **bermerik gabeko ekipamenduak badituzte eta mantentze-lanetarako zerbitzu espezifikorik ez badute, Ibermáticak, aukeran, mantentze-lanetarako zerbitzu bat eskain diezazkieke**. CAUa farmazia guztientzako zerbitzu orokorra bada ere, mantentze-lanetarako zerbitzua

⁷ Hornidura-kontratuaren I. Eranskinean daude bilduta, "Errezeta elektronikoa ezarpen-proiektuaren memoria deskribatzailea" atalean (470-531 folioak).



aukerakoa izan daiteke, farmazia-multzo, eremu edo probintzia baterako, edota, era berean, modu integralean eman daiteke.

8. 2012ko martxoaren 1ean, “Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren, Euskal Herriko Farmazialarien Kontseiluaren, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazialari Elkargoen arteko lankidetzeta-hitzarmena, errezeta elektronikoen proiektua garatzeko, ezartzeko eta martxan jartzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan” (aurrerantzean, Eusko Jaurlaritza-Elkargoak Hitzarmena) izenpetu zuten Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo sailburuak, Kontseiluko lehendakariak eta Elkargoetako lehendakariak.

Hitzarmen horren arabera, Elkargoen ardura da e-rezetaren prozesuan parte hartzen duten **farmazia-bulegoekiko** harremanaren eta **farmazia-langileen** kudeaketa integrala egitea⁸. Hori dela eta, akordioak zenbait ardura ematen dizkie, hala nola jardun-eremu honetan:

Errezeta elektronikoen laguntza-plana exekutatzea (**lehen mailako CAUa**)
Farmazialarien Elkargo Ofizialetarako ezarritako mailan, jardun-eremu horretan erregistratutako kontsultei eta arazoei erantzuteko⁹.

Osasun Sailaren ardura da, berriz, e-rezetaren proiektuaren, eta, Osakidetzaren bidez, **medikamentuak preskribatzen dituzten langileekiko**¹⁰ harremanaren kudeaketa integrala egitea. Hori dela eta, akordioak zenbait ardura ematen dizkie, hala nola jardun-eremu hauetan:

Errezeta elektronikoen laguntza-plana exekutatzea Osasun eta Kontsumo Sailerako ezarritako mailan.

Kontsultei eta arazoei etengabe erantzungo dien laguntza-zerbitzu bat izatea (**bigarren mailako CAUa**)¹¹.

9. E-rezetaren ezarpena dela-eta, eta edozein direla ere Elkargoen nahiz Administrazioaren esku utzitako funtzio orokorrak, farmazia bakoitzak bere sistema informatikoak egokitu behar ditu.

Elkargoak adierazi du, farmazia bakoitzak kontratatu beharreko zerbitzu horren aurrekontuak eskuratzeko, hainbat enpresari ahoz eskatu dizkiela farmazietarako ekipamenduen eta mantentze-lanetarako zerbitzuen inguruko proposamenak eta eskaintzak.

⁸ Hitzarmenaren laugarren klausulako lehen ataleko 2. paragrafoa.

⁹ Hitzarmenaren bosgarren klausula, Elkargoen jardun-eremuei dagokien ataleko 6. paragrafoa.

¹⁰ Hitzarmenaren laugarren klausulako lehen ataleko 1. paragrafoa.

¹¹ Hitzarmenaren bosgarren klausula, Osasun Sailaren jardun-eremuei dagokien ataleko 6. eta 12. paragrafoak.



2012ko maiatzean, Ibermática enpresak (1296-1313 folioak) **E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamena** aurkeztu zion Elkargoari. Proposamenaren asmo nagusia da “farmazietarako ekipamendua hornitzea, bai eta **balio erantsiko zerbitzuak** ere”. Proposamenaren arabera, helburu hau lortu nahi da, besteak beste:

“**Leihatila bakarra**” ezartzea, eta horretan, gaur egun eskaintzen diren zerbitzu guztiak biltzea.

"Leihatila bakar" edo "CAU orokor" horren bidez, zerbitzura jotzeko puntu bakar bat izango lukete erabiltzaileek. Haren bidez, arazoa diagnostikatuko litzateke eta: (a) konpondu egingo litzateke, Ibermáticaren eskumenekoa izanez gero; edo (b) laguntza tekniko espezializatura bideratuko litzateke.

Laburbilduz, farmaziek, proposamen hori onartuz gero, leihatila bakar bat izango lukete, eta horretan, gai hauen guztien inguruko laguntza jasoko lukete: (1298 folioa)

- E-rezeta
- FKA¹²
- Erabiltzaileen ingurunekeo laguntza eta hardwarearen mantentze-lana fabrikatzailearekin.
- Laguntza beste hornitzaile batzuekin (EKT, etab.).

Beraz, **E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamenak** “CAU orokor” bat sortzea dakar, eta, haren barruan, e-rezetaren erabiltzaileentzako CAU bat —kontratatu beharreko zerbitzuaren benetako xedea—, Ibermática-Elkargoak Kontratuaren parte den e-rezetaren oinarritzako CAUarekin edo lehen mailako CAUarekin lotuta dagoena.

Ibermáticak aurkeztutako eskaintza ez zen hautatua izan; izan ere, gutxieneko atxikipen-kopuru bat eskatzen zuen, eta hori ez zettorren bat Elkargoak berariaz ezarritakoarekin (1340-1341 folioak).

Beste enpresa hauei ere eskatu zitzairen aurrekontua: Attest (1314-1318 folioak), Banesto Salud (1275-1295 folioak) —ez dago jasota noiz aurkeztu ziren—, eta Semantic Systems (1216-1274 folioak) —**2013ko martxoaren 1ean** aurkeztu zuten proposamena, LDEZk jarduketak hasi eta hilabete batzuetara—.

¹² Farmaziak Kudeatzeko Aplikazioa (FKA). Farmaziak kudeatzeko softwarea da. Hainbat hornitzailek ematen duten aplikazioa da, eta zenbait aldaketa egin dizkiote, e-rezetaren espezifikotasun teknikoekin eta funtzionalekin bateragarria izan dadin. Maiz, farmaziei laguntza tekniko eta informatikoa ematen dieten zerbitzuak izaten dira aplikazio horien mantentze-lan espezializatuak egiten dituztenak.



Elkargoak Banco Sabadell Atlánticori ere eskatu zion proposamen edo eskaintza bat aurkezteko, baina bankuak uko egin zion, ez baitzuen eskatutako zerbitzua emateko beharrezkoa den negozio-dibisiorik¹³.

10. 2013ko apirilaren 30ean, LDEZk jarduketak hasi eta hilabete batzuetara, Elkargoak mezu elektronikoa bat bidali zien elkargokideei. Hau zen mezuaren gaia: "Errezeta elektronikoa: hornitzaile teknologikoa duen elkargoaren zerbitzu berria". Honela zioen mezuak: (1470 folioa)

(...) Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialak erabaki du lankidetzatza-hitzarmen bat sinatzea **Semantic Systems** enpresarekin, eta, beraz, nahi duten farmazia guztien eskura dago enpresa hori (...)

Farmaziek askatasun osoa dute nahi duten hornitzaile teknologikoa aukeratzeko, eta, era berean, lehiakorragoa izateko tresna berri bat ezar dezakete (...) betiere lehenago aipatutako aukera-askatasuna bermatuz.

11. LEAk farmaziei egindako 31 inkesten arabera, 12 enpresak ematen dute laguntza teknikoa, eta horien artean ez dago Ibermática.

12 farmaziatan (%39), Tedifarmak ematen du laguntza teknikoa; enpresa hori da Gestifarma izeneko FKA kudeatzen duena¹⁴.

¹³ Elkargoak aurkeztutako alegazioen arabera, arrazoi hauek direla-eta eskatu zizkien eskaintzak enpresa jakin horiei (1342 folioa): "Gure gaiari dagokionez, enpresei jakinarazi zaizkien baldintzen edo argibideen ardatz nagusia farmazietarako **hardware ekipamendua hornitzea eta haren mantentze-lanak egitea** izan da. Gure inguruko enpresa askok eman dezakete zerbitzu hori; edo, gutxienez, zerbitzu hori emateko moduan daude. Dena den, argi dago enpresa horiek guztiek ez dituztela eskaintzen eraginkortasun-berme berberak. Hori dela eta, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialak erabaki du **zerbitzu hori emateko gai diren enpresa fidagarri** eskatuko dizkiela eskaintzak.

¹⁴ Elkargoaren datuen arabera, Bizkaiko farmazien %64k Gestifarma FKA erabiltzen du; %13k, SIGEFAR; %8k, Nixfarma; %7k, Farma 2000; eta gainerako %5ak, Farmatic (258 folioa).

Gestifarma FKA SOFTEC GESTIÓN SMU enpresarena zen; enpresa horren %100 SOFTEC SM enpresarena zen; eta, 2006ko urtarrilean, Ibermáticak enpresa horren %100 erosi zuen, eta 2008ko irailean xurgatu egin zuen. 2008ko maiatzean, SOFTEC GESTIÓN enpresak TECNOLOGÍAS DE INFORMACIÓN FARMACÉUTICA SM (Tedifarma) merkataritza-sozietatea eratu zuen, eta Gestifarma FKA transferitu zion. Tedifarma bi fasetan saldu zioten (2008ko uztailaren 15ean eta 2009ko apirilaren 29an) GESTIÓN DE INFORMÁTICA FARMACÉUTICA, CIFARMA SA (Cifarma) enpresari, eta, beraz, 2009ko apirilaren 29tik aurrera, Ibermáticak ez zuen inolako kontrolik Gestifarma FKAren.



III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Araudi aplikagarria

12. Honela dio maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, Estatuko Osasun Sistemaren kohesioari eta kalitateari buruzkoak, 33. artikuluan:

(...)

2. Medikamentuari buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legearen esparruan, Osasun eta Kontsumo Ministerioak, Osasun Sistema Nazionalako Lurralde arteko Kontseiluarekin ados jarri ostean, **farmazia-bulegoen lankidetz**a garatzeko irizpide orokorrak eta komunak ezarriko ditu. Horretarako, itunak egingo ditu, herritarrei bermatzeko benetako berdintasun-baldintzetan emango zaizkiela medikamentuak Estatuko lurralde osoan, edozein autonomia-erkidegotan bizi direla ere¹⁵.

Medikamentuak banan-banan ematera eta errezeta elektronikoa ezartzera joko da, eta medikuen eta farmazialarien elkargoek parte hartuko dute errezeta elektronikoaren garapenean.

3. Aurreko paragrafoko irizpideen artean, farmaziako oinarritzko datuak zehaztuko dira, **bitarteko informatikoen bidez kudeatzeko** lehenago aipatutako jarduerak egiteko beharrezkoa den informazioa, bai eta Osasun Sistema Nazionalako laguntza-egiturekin lankidetzan aritzeko ere. (...)¹⁶

Beraz, araudian jasota dago mediku-errezetak euskarri informatikoekin egiteko edo, hala badagokio, editatzeko aukera.

13. 25/1990 Legea ordezkatzeko duen uztailaren 26ko 29/2006 Legeak, osasun-produktuen eta medikamentuen garantiei eta arrazoizko erabilerari buruzkoak, zera ekartzen du gogora zioen azalpenean: autonomia-erkidegoei zenbait eskumen transferitu zaizkiela, batik bat teknologia berrien erabilerari lotutakoak¹⁷.

Abenduaren 20ko 25/1990 Legearekin hasi zen **osasun-arloko eskumenak autonomia-erkidegoei transferitzen**; bada, aipatutako Lege hori indarrean jarri eta gero, **osasun-arloko eskumenen transferentzia zabaldu egin da, eta autonomia-erkidego guztietara hedatu**. Autonomia-erkidegoen osasun-arloko kudeaketak politika-espektro zabal bat barne hartzen du: osasun-arazoaren tratamenduko lehenetara, tratamendu eta **teknologia berriak sartze**ari, eta autonomia-erkidegoetako profesionalek garatutako prozesu diagnostiko eta

¹⁵ 2006ko uztailaren 28an, Medikamentuari buruzko 25/1998 Legea indargabetu zuen uztailaren 26ko 29/2006 Legeak, osasun-produktuen eta medikamentuen garantiei eta arrazoizko erabilerari buruzkoak (BOE, 178. zk., 2006ko uztailaren 27koa).

¹⁶ 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Estatuko Osasun Sistemaren kohesioari eta kalitateari buruzkoa (BOE, 128. zk., 2003ko maiatzaren 29koa).

¹⁷ Ikus *supra*.



terapeutikoetan aukera eraginkorrenak sustatzeari lotutako politikak, bai eta osasun-arloko profesionalentzako eta zentroentzako ordainsari- eta pizgarri-sistemei eragiten dieten errenta-politikak ere, hori guztia Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko 16/2003 Legean ezarritako irizpideen esparruan hartutako eskumenen jardunari dagokion marjina zabalaren baitan, bai eta gaiari buruzko estatuko gainerako araudietan xedatutakoaren baitan ere.

Lege horren 77.8. artikuluan, zera esaten da:

Gobernuak zehaztuko du **oinarrizko izaerarekin zer gutxieneko eskakizun bete behar dituzten euskarri informatikoekin emandako eta/edo editatutako mediku-errezetek**, bermatzeko hiritar guztiek benetako berdintasun-baldintzetan eta Espainiako lurralde osoan izango dutela Osasun Sistema Nazionaleko farmazia-prestazioa jasotzeko aukera.

14. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 18. artikuluan jasota dagoenez, **EAERI dagokio**, mediku-errezeten arloan, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea (1. paragrafoa). Estatutuaren 3. paragrafoaren arabera, EAERI dagokio, orobat, produktu farmazeutikoei buruzko Estatuko legeria betearaztea. Honakoa dio 4. paragrafoak: "Autonomia Erkidegoak, horretarako, lehen aipatu diren gaiekin lotutako zerbitzu guztiak antolatu eta kudeatu ahal izango ditu bere lurraldean, eta osasun eta gizarte-segurantza arloko erakunde, entitate eta fundazioen gainbegiratzea egingo du, artikulua honetan jasotako egiteko eta eskumenak betetzera bideratutako goi-ikuskaritza Estatuak beretzat gordetzen duela".

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko ordenazio farmazeutikoaren Legeak 1.2 artikuluan ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio lurralde-esparruaren barruan arreta farmazeutikoa emango dela bermatzea¹⁸.

15. Maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 13.d) artikulua arabera, **Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailari** dagokio, besteak beste, farmazien eraketaren funtzioa¹⁹.

¹⁸ 11/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ordenazio farmazeutikoari buruzkoa (EHAA, 135. zk., 1994ko uztailaren 15ekoa).

¹⁹ 4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (EHAA, 86. zk., 2009ko maiatzaren 9koa).

Dekretu hori indargabetu egin zuen 20/2012 Dekretuak, abenduaren 15ekoak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak (EHAA, 243. zk., 2012ko abenduaren 17koa).



Alde horretatik, Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuak dio Farmazia Zuzendaritzaren egitekoa dela, besteak beste, honakoa²⁰:

l) Medikamentuak, dietoterapikoak eta efektu eta osagarriak **preskribatzeko eta banatzeko informazio-sistemak garatzea eta kudeatzea. Errezeta elektronikoaren ezarpena bultzatu eta gidatuko du**, baita preskripzioen oniritziaren aplikazioa ere, finantziazio-irizpideak landuta.

16. Ekainaren 26ko 118/2001 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilua sortzen du. Honela dio 118/2001 Dekretuaren 1. artikulua²¹:

1. Gizarteak dituen interes eta beharrianak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilua sortzen da EA Eren eremuan, hain zuzen ere, lanbide hori mailarik gorenean ordezkatzeko eta defendatzeko.
2. Kontseiluak, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 41.5 artikuluan agindutakoaren arabera, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu.

2. LEKren eskumena, gaia aztertzeko

17. Espediente honen isilpeko informazioa LDEZn hasi zen izapidetzen. LEAk ordezkatu ditu erakunde hori eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia, dagoeneko ez baitira existitzen. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, LEAri dagokio, Kontseiluaren bidez, bere jardunean aurrekariak izan ziren erakundeek irekitako zehapen-prozedurak ebaztea.

18. Lehiaren Defentsari buruzko 49.3 artikulua dio LEAk Lege horren 1., 2. eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak **ez hastea** erabakitzeko aukera izango duela, eta ordura arteko jarduerak artxibatuzeko aukera, **legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela** irizten baldin badio.

²⁰ 579/2009 Dekretua, azaroaren 3koa, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (EHAA, 214 zk., 2009ko azaroaren 6koa).

Dekretu hori indargabetu egin zuen 195/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak (EHAA, 74. zk., 2013ko apirilaren 18koa).

²¹ 118/2001 Dekretua, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilua sortzen duena (EHAA, 130. zk., 2001eko uztailaren 9koa).



3. Jokabidearen azterketa

19. Hauxe da aztertu beharrekoa: alderdiren batek lehiaren aurkako jokabidea izan duela ondoriozta ote daitekeen azaldutako gertaeretatik. Baina, batik bat, zera aztertu behar da: Ibermáticak, **E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamenean**, CAU orokor bat jaso izana, eta, haren barruan, e-rezetaren erabiltzaileentzako CAU bat, Ibermática-Elkargoak Kontratuaren parte den e-rezetaren oinarritzko CAUarekin edo lehen mailako CAUarekin lotuta dagoena.

A. Elkargoaren jokabideari dagokionez

20. 2013ko otsailaren 20an, informazio-errekerimendua igorri zitzaion Elkargoari, eta jakinarazi zitzaion jokabide hori aztertua izaten ari zela, lehiari izan zezakeen eragina zela-eta.

Espediente honetan frogatutzat jo denez (9. paragrafoa), Elkargoak 5 enpresari eskatu zien (Attest, Ibermática, Banesto Salud, Semantic Systems eta Banco Sabadell Atlántico) proposamenak eta eskaintzak aurkezteko, farmazietako sistema informatikoen egokitzapena egiteko zerbitzuen inguruan. Dena den, espedientean jasota dagoen datu bakarra da eskaintzak egin zirenetik ia urtebetera egin zela aurkezpena.

LEAk informazioa eskatu zion unean, Elkargoak oraindik ez zuen aukeratu enpresek aurkeztutako eskaintzarik.

Elkargoak adierazi duenez, eskaintzetako bat aukeratzeko unean, elkargokideei ez litzaieke eskaintza hori nahitaez inposatuko, baizik eta hala erabakitzen dutenek bakarrik onartuko lukete.

Ibermáticak aurkeztutako eskaintza ez zen hautatua izan; izan ere, gutxieneko atxikipen-kopuru bat eskatzen zuen, eta hori ez zettorren bat Elkargoak berariaz ezarritakoarekin (*1340-1341 folioak*).

Halaber, frogatutzat jo da (11. paragrafoa), 2013ko apirilaren 30ean, Elkargoak mezu elektronikoko bat bidali zuela kideei. Horretan, jakinarazi zien **Semantic Systems** enpresak aurkeztu zuela zerbitzua emateko eskaintzarik onena, eta gogorarazi zien askatasun osoa zutela beren arazoak kudeatzeko egokien irizten zuten zerbitzu-emailea aukeratzeko.

21. Beraz, espedientean jasota dagoena ikusita, ezin da ondorioztatu Elkargoak benetan egindako jardunbideek lehia-arazorik ekarri dutenik.



B. Ibermáticari dagokionez

22. Frogatutzat jo da (7. paragrafoa) Ibermática-Elkargoak Kontratuak bere azalpen-memorian jasotzen duela honako aukera hau: farmazia guztiei eskaintzen zaien e-rezetaren oinarrizko CAUaz gain, Ibermáticak, aukeran, mantentze-lanetarako zerbitzuak eskain diezazkiekeela "bermerik gabeko ekipamenduak dituzten eta mantentze-lanetarako zerbitzu espezifikorik ez duten" farmaziei (476 folioa)".

Bestalde, frogatutzat jo da (10. paragrafoa) **E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamenak** CAU orokor bat eskaintzen duela, eta, horren barruan, e-rezetaren erabiltzaileentzako CAU bat, Ibermática-Elkargoak kontratuaren parte den e-rezetaren oinarrizko CAUarekin edo lehen mailako CAUarekin lotuta dagoena. Ondoren, jokabide hori LDLn bildutako motaren batean jasota ote dagoen aztertu behar da.

a. Kolusiozko jarrerak

23. LDLren 1. artikulua debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, baldin eta horien helburua merkatuetan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada.

Artikulu horretan deskribatutako arau-haustea egiteko, operadore ekonomikoek borondate-akordio bat izan behar dute.

Aztertzen ari garen kasuan, ez da horrelakorik gertatu. Izan ere, operadore ekonomiko bakarra dago —Ibermática— eta, alde bakarretik, proposamen bat egin du. Espedientean ez dago jasota aurretiko argibiderik, ez eta Elkargoaren onespenerik ere.

Gainera, azkenean, Elkargoak ez die proposamena helarazi elkargokideei.

Beraz, borondate-aniztasunik ez dagoenez, jokabidea ezin da hartu 1. artikuluan adierazitakoen motakotzat.

b. Nagusitasunezko posizioaren abusua

24. LDLren 2. artikulua araberak, debekatuta dago enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea.

Artikulu horretan ezarritakoa aplikagarri izan dadin, bi baldintza hauek bete behar dira, gutxienez: batetik, operadore ekonomikoak nagusitasunezko posizioa izan behar du merkatu adierazkorrean; eta, bestetik, jokabideak gehiegizkoa izan behar du. Hori ez ezik, abusuak lehiaren kontrako eraginak



izan behar ditu, jokabide horrek berak ekar ditzakeen efizientziekin indargabetu ezin direnak.

25. Pentsa liteke jokabide horrek, alde batetik, EAEko farmazietako **e-rezetaren ezarpen teknologikoaren** merkatuari eragiten diola, funts publikoekin finantzatutako Ibermática-Elkargoak Kontratuaren ondoriozko kontratazioak eraginda.

E-rezetaren ezarpen teknologikoaren merkatuak barne hartzen du farmazien, Elkargoaren eta Osasun Sailaren artean elkarreragiten duen plataforma teknologikoa eraikitzea ahalbidetzen duen edozer. Besteak beste, e-rezetaren ezarpenerako azpiegiturak, aplikazio informatikoak eta kudeaketa-tresnak zehazten, garatzen eta ezartzen dira. Hori guztia osasun-txartel elkarreragileko sistema batean oinarrituz, herritarrek EAEko lurraldeko edozein puntutatik osasun-sistemako prestazio sanitarioak eskuratu ahal izan dezaten.

Kontratazio horrek ustez eragindako merkatuan, Ibermáticak bakarrik ematen ditu zerbitzuak, eta horien artean dago "e-rezetaren oinarrizko CAUa" deritzona.

26. Aztertu behar da Ibermáticak bidegabeki abantaila atera ote duen EAEko farmazietan e-rezetaren ezarpen teknologikoa egiteko merkatuan duen posiziotik, probintzia-mailako **farmazietarako laguntza tekniko eta informatikoarekin** lotutako merkatuan eragiteko eta, horrela, abusu baten bidez, bere E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamena hautatua izan dadin bultzatzeko.

Farmazietarako laguntza tekniko eta informatikoaren merkatuak barne hartuko luke IKTekin lotutako arazoak kudeatzeko eta eskakizunei erantzuteko zerbitzuak ematea²². Online zerbitzuak ematen badira ere, merkatu honen eskakizunetako bat farmazian bertan berehala laguntza jasotzea da, eta, beraz, hurbiltasun geografikoa oso garrantzitsua da.

Bizkaian, 10 enpresak egiten dute lan gutxienez, farmaziak kudeatzeko 5 aplikazio desberdinekin (*1405-1494 folioak*).

27. Laburbilduz, zera egiaztatu beharko litzateke: ea E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamenean e-rezetaren oinarrizko CAUa —Ibermáticak bakarrik ematen du zerbitzu hori— sartu izanak lehiatzeko desabantaila-egoeran jarri dituen farmazietarako laguntza tekniko eta informatikoaren

²² Farmazien kasu konkretuan, FKA elementu bereizlea izan daiteke, merkatu honetan jarduten diren enpresek mantentzen duten FKAr lotuta egiten baitute, eta, harreman hori oinarri hartuta, ohikoa da laguntza tekniko eta informatikoko pack integralak eskaintzea hileko kuota baten truke.



merkatuko operadoreak, eta, ondorioz, operadore horiek ezin duten eraginkortasunez lehiatu beren merkatuan, Ibermáticaren abusuzko jokabidea dela-eta.

28. Elkarri lotutako merkatuen doktrinaren arabera, Ibermáticak bere merkatuan duen nagusitasunezko posizioa merkatu horrekin oso lotuta dagoen beste merkatu batera hedatu zitekeen, eta horrek lehiaren kontrako eraginak izan zitzakeen bigarren merkatuan.

Hori gertatzeko, baldintza hauek bete behar dira²³:

a) Enpresa horrek nagusitasunezko posizioa izan behar du ordezeko eraginkorrik ez duen ondasunen baten gainean.

EAEko farmazietan e-rezetaren ezarpen teknologikoa egiteko merkatuan, Ibermática da operadore bakarra.

b) Merkatu bien arteko lotura estua izan beharko da, nagusitasuna jasaten duen merkatuak benetako eragina eduki ahal izan dezan lotutako merkatuko lehian.

Ibermática nagusi den merkatuak baldintzatu egin lezake farmazietarako laguntza tekniko eta informatikoaren merkatuko operadoreen jarduna; izan ere, oztopoak jar ditzake e-rezetarekin lan egiteko beharrezkoak diren eragileak lortzeko (mantentze-lanen arduradunak kudeatzen duen FKArekin bateragarria izan behar du), edota baliabide jakin batzuk besteen esku ez jartzea erabaki dezake (horixe da e-rezetaren oinarrizko CAUaren kasua).

c) Nagusitasuna duen enpresak lotutako merkatura zabaldu ahal izango du boterea, lehia ahulagoa izan dadin.

Ibermáticak posizio pribilegiatua du e-rezetaren ezarpen teknologikoan, eta, horren ondorioz, EAEko farmazia guztiek zer baliabide dituzten jakin dezake, eta erraz diseinatu ditzake haren helburu sozialarekin (aholkularitza informatikoko jarduerak) eta eskaintzen dituen zerbitzuekin (besteak beste, hirugarrenen aplikazioen mantentze-lanak eta *help-desk* zerbitzua) loturiko produktuak/zerbitzuak, eta, horrela, EAEko farmazietara iritsi.

d) Produktu loteslea eta lotutako produktua ezin dira produktu bera izan, eta biek produktu-merkatu desberdinetakoak izan behar dute²⁴.

²³ Ebazpen hauetan adierazitakoarekin bat eginez: Espainiako Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren (ELDA) ebazpena, R 713/07 - *Special Prices / Binter Canarias* espedientea, 2007ko apirilaren 12koa; ELDAren ebazpena, 482/00 - *Gas Natural Castilla y León* espedientea, 2001eko urtarrilaren 5koa; ELDAren ebazpena, 540/02 - *Gas Natural* espedientea, 2003ko azaroaren 14koa.

²⁴ ELDAren ebazpena, R 568/03 - *Floristerías Tanatorios Castellón* espedientea, 2004ko maiatzaren 13koa.



Kasu honetan, bi baldintza horiek betetzen dira.

e) *Ustezko arau-hausleak interesen bat izan behar du lotutako merkatuan, horretan aktiboki lehiatzen delako edo horretan sartzeko asmoa duelako*²⁵.

Ibermática ez dago farmazietarako laguntza tekniko eta informatikoaren merkatuan, baina E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamenetik ondoriozta daiteke merkatu horretan egon nahi duela.

29. Hala eta guztiz ere, nahiz eta Ibermáticak gaitasuna duen lotutako merkatuan eragiteko, ez da frogatu benetan horrelakorik gertatu denik.

Hain zuzen, ez dago argi gainerako lehiakideei kendu dienik e-rezetaren CAUerako sarbidea, baizik eta, beste CAUen kasuan bezalaxe (FKA, hardwarea...), E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamenean sartu duela CAU hori. Hortaz, e-rezetaren CAUarekin lotutako arazoak CAU orokorrak jasoko lituzke eta Ibermáticak konponduko lituzke; Ibermáticarenak ez diren CAUekin lotutako arazoak, aldiz, CAU orokorrak jasoko lituzke, eta, Ibermáticak konpondu ezin balitu, dagokionari bideratuko litzaizkioke.

Nolanahi ere, e-rezetaren CAUa erabilgarri dago aipatutako CAU orokorretik ez beste bideren batetik hura baliatzeko beharra duen edonorentzat. Laburbilduz, ez da hautematen mugarik jarri zaionik farmazietarako laguntza tekniko eta informatikoaren merkatuan dauden operadoreen jardunari.

Bestalde, ez da hauteman lotutako merkatuetan eragina izan lezakeen beste jardunik²⁶.

Azkenean, E-rezetaren erabiltzaileentzako proposamenak ez du eraginik izan, **Elkargoak ez baitu aukeratu**. Beraz, ez du eraginik izan farmazietarako laguntza tekniko eta informatikoaren merkatuan.

30. Ondorioz, LDLren 2. artikularen arabera, aztertutako jokabidea ez litzateke arau-hauste bat izango.

²⁵ *Supra*, «(...) interesen bat izan beharko lukete aipatutako merkatuan, horretan aktiboki lehiatzen direlako edo, gutxienez, horretan sartzeko asmoa dutelako, erkidegoaren eta ELDAren jurisprudenzian adierazita dagoenez, bai eta Telekomunikazioetara sarbidea izateko hitzarmenetan lehia-arauak aplikatzeari buruz Batzordeak egindako jakinarazpenetik ondorioztatzen denez ere (EEAO, C265/2 1998, *essential facilities* delakoen doktrina dakarrena».

²⁶ Aipatutako jardunen artean, hauek nabarmendu daitezke: FKA baten aldeko baldintzak ezartzea, edota elkargo-sarera sartzeko justifikatu gabeko irizpideak ezartzea, Galiziako Lehiaren Kontseiluaren 2012ko urriaren 15eko R 2/2012 – *Receta Electrónica*, espedientean jasota dagoenez.



c. Interes publikoari kalte egiten dion lehia desleiala

31.LDLren 3. artikulua debekatu egiten ditu lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten dioten lehia desleialeko egintzak. Interes publikoari kalte eginez gero, lehia faltsutzeak ondorio nabaria dauka eraginpeko merkatuan.

Kasu honetan, ez da irizten lehia desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legea urratu denik, eta, beraz, ezin da aplikatu aipatutako 3. artikulua.

Lehiaren Euskal Kontseilu honek, arestian azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau,

EBATZI DU

BAKARRA.- Onetsi egingo da IZren ebazpen-proposamena eta, ondorioz, ez da zehapen-espediterik irekiko errezeta elektronikoaren ezarpenaren esparruan Bizkaiko farmaziei zerbitzu informatikoak emateari dagokionez, ez baitago Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen arauak urratu izanaren zantzurik.

Jakinaraz bekio Ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie Ibermáticari, Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialari, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, eta adierazi behar zaie Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, aipatu jakinarazpenetik hasi eta bi hilabeteko epean.

LEHENDAKARIA
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ALVAREZ CASADO



KIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA